



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abenduaren 23a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala berrikus dezan Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Eunateko Santa Maria eliza abenduan itxita egoteari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (4. or.).
- Galdera, Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (5. or.).
- Galdera, menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (5. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (6. or.).
- Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den, Román Felones Morrás jaunak egina (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2011rako (9. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2011rako (10. or.).
- Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (11. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 25ean egindako bileran, hauxe erabaki zuen Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena izapidetzeko prozedurari buruz: "Legebiltzarreko Mahaiak zuzenketak aurkezteko epe bat irekiko du aurki osatuko den lan-taldeak bere azterlana bukatutakoan". Foru lege proposamen hau Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta Osoko Bilkurak aintzat hartu zuen 2009ko maiatzaren 14an egindako bileran.

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertze aldera osatutako lan-taldeak bere

azterlana amaiturik, lehengo erabakia bete behar da.

Hori horrela, Erregelamenduko 127. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Erabaki hau argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta **2011ko otsailaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala berrikus dezan Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak, 2010eko abenduaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala berrikus dezan Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala berrikus dezan Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala berrikus dezan Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana eta jaso ditzan plan hori osatzeko beharrezkoak diren neu-

riak, Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komiteak iradoki dituenak eta beharrezkoak eta komenigarriak direla frogatuta daudenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako 2010etik 2013ra bitarteko Lehen Plana berrikusi, gaurkotu eta onetsi ostean al bait arinen igor dezan Parlamentu honetara, Foru Legebiltzarra izan dadin plana azkenean izapidetzen eta onesten duena, halako moduz non Parlamentuan onetsita ziurtatuko baita indarrean izanen dela eta beteko dela, hauteskunde-prozesuak edo hurrengo hauteskunde autonomikoen ondorioz gerta litezkeen gobernu aldaketak gorabehera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako Lehen Plana onesten duen azaroaren 8ko 339/2010 Foru Aginduaren indarraldiari eta eraginkortasunari euts diezaien, legebiltzar honek, Erregelamenduko 201. artikuluan ezarritakoaren arabera, plan hori behin betiko onesten ez duen bitartean, eta garatu eta bete ditzan, gutxienez ere, planean ageri eta 2011ko lehenengo hiruhilekoan aplikatzekoak diren lerro, neurri eta jarduketa guztiak.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Eunateko Santa Maria eliza abenduan itxita egoteari buruzkoa.*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Eunateko Santa Maria eliza abenduan itxita egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eunateko Santa Maria eliza abenduan itxita egoteari buruzkoa, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Nafarroak badu monumentu-ondare bat, mendeetako herentzia, zainketa gero eta handiagoa eta berezia izan duena, batez ere 1940tik aitzina,

urte horretan sortu baitzen Vianako Printzea Erakundeak. Babes-maila handiena kultur intereseko ondasunei dagokie, eta horien artean dago, Izarbeibarren bihotz-bihotzean, Eunateko Santa Maria eliza oktogonala. Vianako Printzea Erakundeak aurreko hamarkadetan zaharberritu zuen eliza hori, eta Nafarroako eta are Espainiako eta Europako erromanikoaren adibiderik paregabeenetako bat da.

Donejakue Bidearen erdi-erdian dago, eta Donejakueren urtean gauden arren, elizaren atean dagoen afixa batek iragartzen du abenduan jendearentzako itxita egonen dela.

Hori guztia gutxi balitz bezala, Kultura eta Turismoko 2010eko aurrekontuan 40.000 euroko kontusail bat ageri da, "Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa" izenekoa, gisa horretako eraikinak irekita eduki ahal izateko bereziki sortua.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Gobernuaren ustez, arrazoizkoa al da Eunateko Santa Maria eliza abendu osoan itxita egotea? Zer egingen du Gobernuak egoera ulergaitz eta onartezin hori konpontzeko?

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berriari buruzko honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin:

Iragan azaroaren 23an, Nafarroako Gobernuko prentsa kabineteak eta eskualdeko hedabideek jaso zuten berriaren arabera, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Kulturako Konferentzia Sektorialaren bileran parte hartu zuen, Kultura Ministerioko ordezkariekin eta autonomia erkidegoetako arduradunekin batera.

Informazioan adierazten zen azterketa eta proposamenak egiteko lan-talde bat sortzea onetsi zela konferentzian, kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berri bati dagokionez, eta Nafarroa horretan sartuta egonen dela. "Nafarroa –adierazi zuen kontseilariak– aspalditik ari da hausnarketa egiten kultur azpiegituren kudeaketa eredu berri bati buruz."

Ekimen horrek duen interesa ikusita, ondokoa jakin nahi da:

Zehatz al ditzakezu hausnarketa prozesu horren emaitzen ezaugarri nagusiak?

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzuteko.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak behin eta berriro jarri du agerian Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea ez zela betetzen ari bere artikuluetan finantzaketari dagokionez ezarritakoarekin bat.

47. artikulua –finantzaketaren bideak eta printzipioak–, 2. idatz-zatian argi uzten du Nafarroako Administrazio Publikoen konpromisoa, ziurtatu beharko baitute “herritarren eskubidea gizarte zerbitzuen zorrotan aitortzen zaizkien prestazioak jasotzeko eta haien eskumeneko zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko, aurrekontuetan horretarako behar diren zenbatekoak ezarri.”

Mendekotasun aitortuko eta behar bezala artatu gabeko partikularren eta familien kexak direla-eta, kontseilariak berak esana du: ados ez dagoenak jar dezala errekurtsioa auzitegietan.

Orain onartzen da mendekotasuna dela-eta artatuak izateko eskubidea duten pertsonen bost urtera bitarte itxoin beharko dutela eskatutako laguntza atzeraeraginez jasotzeko.

Galderak:

- Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin ditu Estatuko Gobernuaren aurrean, mendekotasuna artatzeagatik % 33ren ordainketa jasotzeko?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Estatuarekiko Hitzarmenetik kentzeko mendekotasuna duten pertsonen jadanik gehiago ordainduko ez dien zenbatekoa?

- Bi administrazioen artean –foru administrazioa eta Espainiako– une honetan egiten ari diren negoziazioetan, aurreikusita al dago legezkontratasun hori konpontzea?

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Parlamentu-talde honek jakin badaki Tuterako Reina Sofía Ospitaleko dermatologiako zerbitzuan aldaketak izan direla profesionalen batek erretiroa hartu izanaren ondorioz eta Osoko Bilkuran orain dela gutxi jorratutako beste auzi batzuen ondorioz.

Une honetan dakiguna da dermatologiako zerbitzuak, Osasun Departamentuak berrestea falta bada ere, zerbitzu pribatu bat kontratatu duela (Tuterako Poliklinika).

Jakin badakigu zentro pribatu horretara bideratutako langileetako batzuk Ospitalera itzultzen direla bere osasun-arazoak konpontzeko.

Hori dena Osasun Departamentuak baieztatu edo ukatu behar duenez, ondoko erantzunak erantzutea nahi dugu:

- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko dermatologiko zerbitzua nola dago taxututa?
- Ba al dago Poliklinarekiko hitzarmenik edo akordiorik gaixoak hara bideratzeko?

• Departamentuak egiaztatu al du zerbitzu pribatu horretara bideratutako gaixoak ospitaleko kontsultara itzultzen direla?

Baldin eta gaixoak klinika pribatura bideratzeko konpromisoa badago, horren xehetasunak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Administrazioaren eraginkortasuna bereziki beharrezkoa da herritarren zerbitzura egon nahi duen administrazio batean. Eraginkortasuna neurtzeko baliatzen diren oinarritzko irizpideetako bat da noiz egiten diren Departamentuak egin beharreko urteko deialdiak.

Kasuan kasuko administrazio-espeditentak azkartze aldera, Kultura eta Turismo Batzordeak aurrena eta Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hurrena mozio bana onetsi zuten aho batez, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzen martxoaren 31 izan zedin deialdi guztiak NAO-n argitaratzeko azken eguna, eta salbuespezez egin ahalko zirela egun hori baino geroago, justifikatuz gero betiere.

2010eko deialdiak zertan diren jakite aldera, ondokoari erantzutea nahi dut:

Zenbat deialdi egin ditu Kultura eta Turismo Departamentuak martxoaren 31 eta gero? Xehatu ahal den guztia, adierazita zer deialdi den, zein egunetan egin den eta atzerapena zeri zor zaion.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregela-

menduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

2010eko aurrekontuan, zeina Nafarroako Parlamentuak onetsi baitzuen, “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” izeneko kontusaila –40.000 eurokoa– ageri da Kultura eta Turismo Departamentuaren “Maketina eta turismo garapena” izeneko programaren barruan, A10 programaren barruan.

2010. urtea bukatzeaz denez, ondokoa jakin nahi dut:

Zer ekintzatarako baliatu da kontusail hori? Xehatu ahal den guztia nola baloratzen duen Nafarroako Gobernuak programa horren garapena eta programaren zer alderdi aldatu nahi dituen Nafarroako Gobernuak, kontusail hori 2011n ere egonen baita.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2011rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari Nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2011ko egutegia onetsi da. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailaren 7a, 8a, 11, 12a, 13a eta 14a: San Ferminetako jaiegunak.

– Urtarrilaren 7a eta abenduaren 26a: jaiegunak.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administraziorako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30etik eta 15:30era bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da, uztailaren 6an izan ezik, non ordutegia 08:00etatik 11:30era bitartekoa izanen baita. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etik eta 15:00era bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6,30 ordu bete beharko dira lanean.

Abenduaren 30ean lanaldia 7 ordukoa izanen da, 7:30etik 14:30era.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2011rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 107. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2011. urterako hauxe izanen dela:

Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostegunera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Ostirala 09:00etatik 14:30era.

– Larunbatak: itxita.

– Abenduaren 30ean zabalik egonen da 9:00etatik 14:00etara.

– Urtarrilaren 7an eta abenduaren 26an itxita egonen da, eta baliogabea izanen da ondorio guztietarako.

Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatak: itxita.

– Uztailaren 6an zabalik egonen da 9:00etatik 11:00etara.

– Uztailaren 7an, 8an, 11n, 12an, 13an eta 14an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordearen 2010eko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez eskatu zen 2010eko abenduaren 27tik 30era bitarteko lan-asteen goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan harturik abenduaren 27, 28, 29 eta 30eko egunetako arratsaldeetan ez dela Parlamentuko jarduerarik izanen, eta kontuan harturik baita ere izandako aurrekariak, hau da, Aste Santuaren ondorengo lan-astea zela-eta Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko erabakiak (lan aurreikuspenei lotuak, betiere), hona ERABAKIA:

1. Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko Erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea; halatan, 2010eko abenduaren 27, 28, 29 eta 30eko lanaldia goizekoa izanen da, baina hori ez da eragozpen izanen langileek goizeko ordutegitik kanpo ere lan egin behar izateko, baldin eta Legebiltzarreko lanak horretarako beharra eragiten badu.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2010eko urtarrilaren 26ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2010eko abenduaren 27, 28, 29 eta 30ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

